

219. zk.

Bigarren aroa

Abenduak 15  
2013

Irungo  
euskarazko  
hamabostekaria

# Irunero



Julian Iantzi, telebista aurkezlea

## Gaztea

IrunBreak Lehiaketa,  
abenduaren 29an



## Kirolak

Olatz Zabala,  
Santiagotarretako  
piraguista eta  
entrentzailea



## “Antzerkiak harrapatu nau”

- 4-5 Euskararen Eguna
- 6 Irun Hiriak 100 urte
- 7 Gure Berts(i)oa
- 8 Kirolak **Bidasoa Atletiko Taldea**
- 11 Haurren leihoa. **Toki Alai LH**
- 12 Gazteen Lanak. **Toki Alai BHI**
- 14 Gazte informazioa
- 15 Kultur agenda

Gastronomiaren inguruko  
atal berria



**GASTROFESTA**

Gastrofestaren  
eskutik

[www.jostamendi.com](http://www.jostamendi.com)



# Josta Mendi

- Jostailuak
- Mozorroak
- Motxilak

JOSTAILU GUZTIAK:  
MODAKOAK ETA KLASIKOAK  
SALNEURRI MERKEENAK

Prim, 59. Tel: 943 455300 Donostia  
Letxunborro, 86. Tel: 943 457510 Irun

- Puerikultura-ttikia
- Paseatzeko sillitak
- Sehaskak
- Haur kotxeak

GIPUZKOAKO

ERAKUSKETARIK HANDIENA

Easo, 51. Tel: 943 470244 Donostia  
Artaleku, 3. Tel: 943 638223 Irun



Zure jaioberria  
zaintzen dugu

## Suila bete euskara



Xabier Kerexeta

Euskararen mama goxoa ahoratu nahi dugunok mozkortzeko aukera gutxi izan ohi dugu. Alderantziz, zenbatetan ez ote dugun edaten erdal iturrian urardotutako hitzak! Noiz edo noiz, ordea, erdaraz edaten ari garela, hara! euskal iturriko ardo fresko txuria aurkitzen dugu.

Donostiako Danborradan, Kresala kultur elkarteko emakumeek ere parte hartu nahi zutela eta, iturri historikoetara baino gehiago mitoarenera jo zuten. Izan ere, XIX.ean emakumeak urketa iturrira joan eta beren ontziekin erantzuten omen zieten militarren danborrei, upel joka omen zebiltzan iringile (gero sukaldari bihurtuta) gizonezkoekin batera. Agian, oraindik Bretxako merkatura jaisten ziren esneketeriei erreparatuta, "urketari" euskaldundu zuten aguadora Kresalakoek. Tira, 2012an bertan argitaratutako liburu baten

euskal bertsiotan "urkariak" agertzen da, itzultzaileek euskal mundura ez baina erdarazko kalko hutsera jotzeko duten errazkeriaren adierazgarri. Kontuan hartuta "herrada" batzuek "errada" (euskal edarraz nahasita) itzultzen dutela, eta beste batzuek "burdinazko ontzi", edozer.

2013an, 1913ko mendeurrenaren karietara halako itzultzaileek duela ehun urte idatzitako erdal testuak irakurri balituzte, aurkituko zuketena euskaraz herrada suila dela. Eta orduko desagertzeaz zegoen ofizioko langileak deitzen zituztela, erdaraz inolako izenik eman gabe, "las sullabetetzalles". Eta ez zuten hartarako erdarazko hitza, orduan donostiar jatorrek, hots, pobreek, erdaraz egiten ez zutelako. Gerora hizkuntzaren egoera zeharo hankaz goratu zen, eta orduko aberatsak elebidun izateari utzi ez ezik jende xume asko belaualdi pare batean euskaldun huts izatetik erdaldun huts izatera iragan zen. Orain donostiarrak berdin elebidun izateko bidean omen doaz. Hala bada, hala bedi.

Dena dela, nago ez ote gabiltzan berandu suilabetetzaille hitz eder askoa baina erdaldunentzat esaten zail samarra txertatzeko Donostiako festaren hiztegian, musika-tresna berria, partxedun suila, urkedanborra izendatu dute eta.

## Irunero

Erredakzioa eta maketazioa:

Ana Grijalba  
[agrijalba@irunero.com](mailto:agrijalba@irunero.com)

Kirolak: Naiara Hernandez  
Lekuona

Euskara zuzentzailea:  
Xabier Kerexeta

Publizitatea:  
Sonia Garcia Olazabal,  
Amaia Terrazas

[sgarcia@baseclick.es](mailto:sgarcia@baseclick.es)

Argitaratzailea:  
Baseclick S.L.

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua:  
SS-230-94.

Maiatzaren Lehena, 23 -  
20304 IRUN

Tel: 673 39 84 57

[www.irunero.com](http://www.irunero.com)

Honako erakunde hauek Irunero diruz laguntzen dute:



## Irun atzo Irun gaur



Legazpi kalea atzo

Legazpi kalea gaur

1960an Udalak Miguel Lopez Legazpikoren izena jarri zion. Erabakiaren zergatiaren inguruko azalpenik ez da inondik inora agertzen. 1503an edo 1505ean Zumarragan jaio eta Manilan 1572an hil zen Filipinetako gobernadore eta kapitain orokorra.

Urdanetak Pazifikoko mendebaldeko uharteretara espedizioa egitea proposatu zion. Filipinetako artxipelagoa izenez bataiatu zuen, "hara bidali ninduen printze zuhurraren omenez". Manila herri indigenaren hondakinen jabe egin zenean, 1571an, artxipela-

goko hiriburua sortu zuen.

Goiko argazkia 1983koa da. Kaleak ez zuen irteerarik eta Cartonajes del Bidasoa fabrikari amaitzen zen. Bigarren argazkia 1993 urtearen bueltakoa da, ertzainetxea eraiki ondoren kalea urbanizatu zeneko. Bidasoa kalera irteera eman zitzaion. Oraindik bertan ziren atzean ikusten diren Santifer aduana agentziaren biltegiak. Hirugarrena gaur egungoa da.

Iturria: Irungo kaleen izenak. José Monje.

# “Antzerkiak harrapatuta geratu naiz”

Muturreko sentsazioak dastatzeko grinak estratosferan osteratxoa egitera ere jaurti du.

Azken erronkak, berriz, oinak oholtza gainean edukitzeko eskatzen dio. “Ez daukak potrorik”, esan zioten antzerkia egitea proposatzean.

Eta desfaioari heldu zion.

## - Nolakoa da Julian Iantzi?

Jende askok, ezagutzen naue-  
nean, zera esaten dit: *Bai nor-  
mala zarela!* Horrek pozten nau.  
Lasaia naiz, nire burua kontrola-  
tzen badakit, baina aldi berean  
erronkazalea naiz, alegia, mugimendua behar dut.

## - Zure familiaren historiak ere erronka du ezaugarri nagusi, aita Kalifornian 23 urtez artzain ibilitakoa zenuen eta. Zer erakutsi zizun?

Bai, gurasoak eta osabak erronkazaleak eta kirolariak ziren, baita artista senekoak ere. Ni horren guztiaren produktua naiz.

Telebistan hasi nintzenean aitak esan zidan: *erakutsi ezazu zuk egin ahal duzula besteek egiten ez dutena*. Ausartu nendila aholkatzen zidan, hori bai, beti errespetuz.

## - ETBko pieza nagusietakoa zara. Ardua handia sentitzen duzu?

Ez. Kamera aurrean jartzen naitenean lana ahalik eta hoberen egiten saiatzen naiz. Gogoan dut nire hasiera haietan SER irrati-  
ko Begoña Marañonek emandako aholkua: *Julian Mari, zu saia zaitenez ongi pasatzen, hala etxekoek ere ongi pasako dute ziurrenik*. Zorionez, nire programak ikusienak dira. Halere, entzule-kopurua urria denean ez naiz errotzen.

- **Erronka bilduma egiten duzula dirudi. Zein duzu orain buruan?**  
Sentsazioak probatzea dut gustuko, bizitzan txinparta behar dudalako. Orain 1 Formula probatu nahi dut; azelerazio ikara-

garria plano horizontalean. Bestalde, Iron Man gogor bat egin nahi nuke, hau da, hiru kirol uzartzen dituen proba: igeriketa, txirrindularitza eta korrika.

## - El Conquis, 101 Gaztelu... halako programetan parte hartzeko sasoian egon behar duzue, baina ez da nekagarriagoa alderdi psikologikoa?

Edozein etxetan bezala liskarrak daude, baina elkarrekin jarraitu behar! Nahiz eta jakin baten bat faltukeriatan dabilela, eutsi behar! Bai, hala da, psikologikoki indartsuago egon behar duzu fisikoki baino, joko estrategikoa oso inportantea delako kanporatua ez izateko. Askotan gauzak ez dira kanpotik ikusten. Nire papera kartak mahai gainean jartzean datza.

Lehiakideak nor bere buruaren mugak non dauden jakitera joaten dira, bada, nik egurra ematen diet. Onartu ezin dena da 3. egunean etxera joan nahi izatea.

- **Berriki antzezle lanetan hasi zara, alor guztiz berria, eta gainera protagonistaren paperean.**  
*La última oportunidad* izenburuko komedia bat da. Gurutze Beitia eta biok besterik ez gara taula gainean agertzen. Hasieran testu pila hura buruan sartu ezingo nuela uste nuen. Bi hilabete egunero 8 orduz entseatzeko igaro ditut: mugimenduak, testua... oso landua izan da eta esperientzia polita. Entseguak gogorrak izan ohi direla esan zidaten, baina, behin oholtza probatuz gero, harrapatuta geratuko nintzela. Hala izan da.

## Julian Iantzi, telebista aurkezlea



Bitxia gertatzen zait gag batek herri batean duen arrakasta eta beste batean, batere.

## - Kalifornian euskal artzainei buruzko erreportajeak grabatu dituzu.

Han duela 40 urte artzain ibilitako lagun talde bat hartu eta bertan garai hartako bizimoduak kontatu dituzte. Pertsona hauei aitortu behar zaie, alde batetik, gure enbaxadoreak izan direla munduan eta haiei zor diegula euskaldunok dugun ospe ona, eta bestetik, ekarri zuten diruari esker hemengo bizimoduak hobe-  
betu zutela.

Oso hunkigarria izan da.

## Irun oso bizitoki ona da

Hamaika bazter korritu dituzu. Egin ezazu Iruni buruzko publizitate pixka bat.

Ni oso ondo bizi naiz Irunen: hiri lasaia da, mendia bertan dugu, itsasoa, giroa, beste herri batzuetatik hurbil dago... Txingudi hainbat turistak aukeratzen badute, ez da leku txarra izango! Bidaia-entseak zera erakusten dizu: badaude oso toki eta bizimodu politak, baina ezaugarri guztiak koktel-ontzi batean sartuz gero Irun bezalakorik ez dut ezagutu.

Argentinan, esaterako, haurrek ezin dute kalean jolastu delinkuentzia arazoengatik, EEBBetan psikosis handia dago, Alemanian hotz egiten du... Gurea bizitokien Top Five-an dago!



www.kineesis.net

- METODOA: K-STRETCH®
- METODOA: HIPOPRESIBOA®
- BERREZIKETA POSTURAL GLOBALA (RPG)
- PILATES
- PILATES HAURDUNENTZAT

www.k-stretch.com

Arantzateko Jauna kalea, 10 behe. IRUN. 943 626 983 - 606 298 640

# Euskararen Eguna

## Mintzodromoa



Goizeko lehenengo ordutik Kunsthaleko ikasle talde bat San Juan Harria plazan "Euskararen aldeko post-it art" ekimena burutu zuen. Helburua, mural bat egitea jasotako euskararen aldeko mezuak eta haien idazleen argazkiak tartekatuz. Egun osoan zehar adin guztietako irundarrek esaldiak idatzi zituzten, eta antolatzaileek basokada bana txokolate bero eskaini zieten. Eguna abailduta zenerako helburua erdietsita zegoen: "EUSKARA DENON

HIZKUNTZA" esaldia irakur zitekeen.

Goiz partean, azken urteotan bezala, euskaltegiekin batera, Udalak Mintzodromoa antolatu zuen Mendibil Merkataritza Gunean.

Parte-hartzaileak, kafetxo baten inguruan, euskara ikaslez eta euskaldun osoz eraturako taldetxoetan berriketan aritu ziren eguneroko gaiet buruz.

Jarduera arrakastaz burutu zen eta bukarran opari-zozketa ere egin zen.



## POST IT ART



**Mugaz gairdiko aholkularitza**

**MyL mugan**  
aholkulariak

**Ficoba**  
Iparralde  
hiribidea, 43.  
IRUN  
t 943 537 720  
f 943 116 014  
m 649 014 096  
[www.mylmugan.com](http://www.mylmugan.com)

**ARGITZE ZENTROA**



TITULUDUN  
PROFESIONALA  
Santiago, 51  
IRUN  
635 703055

- Tailletrak hirugarren adinokoontzat.
- Atsedenaldira zaintzalleentzat
- Gehienez 4 ordu egunero (goizez eta/edo arratsaldeez)
- Narriadura kognitiboa gelditzea eta probonitzea
- Trebezia mentalen eta sozio-emozionalen indartzea

## Ika Mizka



Ika Mizka jardueraren inguruko irudi sorta.



Abenduaren 3an Ika Mizka ekimenak 100dik gora lagun bildu zituen Mondragon Unibertsitatean. Parte-hartzaileak taldeka eseri ziren zenbait mahairen inguruan, pintxo goxoak jaten zituzten bitartean euskarari buruz gogoeta egiteko. Hainbat alorretako pertsona ezagunak ere solasaldiari lotu zitzaizkion, euskaraz bizi direla erakusteko xedez. Egun hartan, Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatuen kontseiluak Bidasoko

Campusean bilera egin zuen. Martin Garitano ahaldun nagusia ere gazteekin aritu zen hizketan. Halaber, Iraia Oiartzabal moda diseinatzaileak, Jose Antonio Santano alkateak, Berri Txarrak taldeko bi kideak, Gari Garaialde argazkilariak eta Fermin Muguruza musikariak parte hartu zuten, besteak beste. Jarduera Gaztezulo aldirikariak antolatu zuen, Foru Aldundiaren, MUko ikasleekin eta Irungo Udalaren laguntzaz.

## Kalean Bai



Argazkia: Ana Gomez



Argazkia: Juanjo Allur

Kalean Bai planari beren atxikimendua erakutsi dioten hainbat elkartetako ordezkariak sinadura ekitaldi publiko batean parte hartu zuten Euskararen Nazioarteko Egunean. Sinatzaileen artean, baziren kirol klubak, kultur elkarteak, dantza taldeak, gastronomia elkarteak,

aisialdi taldeak, guraso eta auzo elkarteak, eta abar ordezkatzuten kideak.

Kalean Bai programa, Irungo Udaleko Euskara Arloak 2002an abian jarritakoa, SIADECO Ikerketa Elkartearen birtartez kudeatzen eta koordinatzen da. Ekimenaren helburu nagusia haurrei eta gazteei Irunen eskaintzen zaizkien jarduerak euskalduntzea da, eta horretarako hitzarmen bidezko elkarlana adosten da.

Ezkerreko argazkian, sinatzaileak. Goian, ekitaldia girotu zuten bi txalapartariak.

**SANTYMAR**  
Bakailaoa betiko zaporearekin!!

ES 12.06752/55 CE

Egoitza nagusia:  
Bideurre-Ureder  
Industrialdea  
Ventas, 45 - D eraikina,  
A-2 nabea. IRUN

Tel. 943 620391.  
Tel. eta telekopia: 943 620690

bacalaos@santymar.net  
comercial@santymar.net  
www.santymar.net

# Irun hiriak

## 100 urte

Alfonso XII.a erregek Iruni hiri titulua eman zioneko mendeurrenaren kariatz, Udalak azken ehun urte honetako historia laburbiltzen duen erakusketa antolatu du. Menchu Gal aretoan ikusgai da datorren otsailaren 9ra arte.

Inaugurazio ekitaldia azaroaren 29an burutu zen, Jose Antonio Santano Irungo alkateak eta Sagrario Arrizabalaga udal artxiboko historialariak aurkezpena egin zutela.

Azken 100 urteotako alor guztietako gertaera garrantzitsuenak azaltzeko, taula-sorta bat apailatu da, udal artxiboko eta fototekako dokumentazioa baliatuz.

1913. urtetik abiatzen da, 12.000 biztanleko "hiribildu" hura hiri tituludun izatera pasa zenean. Alfonso XIII.a San Martzialeko II. guduaren mendeurrena ospatzera gonbidatua izan zen; baina Irunera ezin etorri izan zelako, hiri titulua ematea erabaki zuen.

1914-19 urte bitarteko panelaren izenburua Mugako Hiria da. Mugarekin lotuta dago, hain zuzen, garai hartako proiektu garrantzitsuenetako bat: nazioarteko zubiaren eraikuntza.

1920-35eko garaia errepublikanismoa izan zuen ezaugarri, industria enblematikoak ezarri ziren eta elkarteen urrezko aroa bizi izan zen.

1936ak gerra, exodoa eta hondamendia ekarri zituen herrestan. Urte hark historia markatu zuen, ondorio politiko, demografiko, urbanistiko eta ekonomiko latzengatik.

1937tik 45era bitarteko gerraondoko urteetan Irunen lehentasuna hiri berreraikitzea izan zen. "Susperraldia" izenburuz bataiatua izan da 1947tik 59ra arteko urteetan gertatutakoa azaltzen duen taula, hiri urbanistikoki eta sozialki bizkortzen ari zelako.

1960-85 tartean desarrollismoa eta trantsizioa izan zituen ardatz; izan ere, hiriak sekulako hazkundea ezagutu baitzuen. Hamarkada bakar batean (60-70) 29.000 biztanletik 44.000ra iritsi zen. Politikoki, diktaduratik demokraziarako igarobidea gauzatu zen 1975etik aurrera, eta askatasunarekin batera euskal kultura ere klandestinitatetik atera zen.

Hauetaz gain, beste taula baten bidez erromatarren garaian Irun jada "hiria" izan zela jakinarazten da. Azken bietan, argazkien bidez, azken mendeetan gertatu diren aldaketa esanguratsu zenbait jaso dira: eraikinak, espazioak, ohiturak eta jaiak.




Irunerok Eguberri zoriontsuak opa dizkizue irakurle eta bezero guztioi

Eguzki-lorearen babes ahalmena indartsua izan dadila 2014an



- 1.- Erakusketaren irudi bat.
- 2.- Santiagoko muga 1960ko hamarkadan.
- 3.- Hiriaren hazkundea islatzen duen Antzaran auzoaren eraikuntza.
- 4.- Alfonso XIII.ak Iruni hiri titulua eman zioneko dokumentua ekarri da erakusketara.
- 5.- 1913an, Topoaren istripu larria izan zela eta, erregeak Oso Gizalegezko titulua eman zion orduan "hiribildu" titulua zuenari.



# Gure berts(i)oa

Irunabar Irungo bertsoaren bilgunea diskotatu du, *Gure Berts(i)oa*, irundarrak bertso kantari izenburukoa.

Irunabar Irungo bertsoaren bilgunea duela urtebete hasi zen dagoeneko plazan den diskoari buruzko lehen zirriborroak egiten.

Bilgunearen asmoa "Irungo herriak berez baduen baina askotan isilean pasatzen den bertsozalearen forma berezia ematea zen. Ez betiko formatuan, ordea, ezberdina izango zen modu batean baizik. Hori horrela, Irungo bertsolari, bertsozale eta bertso eskoletako lagunei, guztiok komunean dugun zaletasuna ardatz izanik, eskaintza berezi bat egitea pentsatu genuen; bertso musikatzuz osatutako disko bat egitea".

Bertso sorta bat sortu (edo hautatu), eta norberak erabakitako egitura, erritmo, estilo eta musikarekin janztea zen baldintza bakarra. "Konturatzerako, dozenatik gora lagun baginen auzolanean sortu den proiektu honetan parte hartu nahi genuenak, eta 14, azkeneko musikatu ditugun bertso sortak", azaldu dute Irunabarretik.

Baina ez dira kantuan aritu direnak diskoan parte hartu duten bakarrak. Musikariak, maketagilea, marrazkilaria,

gurasoak zein gure herriko bertso ondarea biltzeaz arduratu direnak ere diskoaren partaide dira, eta guztira 50 lagunetik gorako taldea osatu dute.

**GURE BERTS(I)OA**, irundarrak bertso kantari du izenburu disko honek. Entzuleak hauxe topatuko du: "Bakoitzak gure herriarekiko, historia nahiz istorioekiko, sentimenduekiko edo bizitzarekiko dugun bertsoa azaltzen duen kontakizun intimoz osatutako adierazpen kolektiboa".

Diskoa 10 €tan salgai da jada, honako salmenta-puntu hauetan:

- Sunbilla

- Hazia

- Kabigorri

**Sarean:**

[irunabar@gmail.com](mailto:irunabar@gmail.com) edo [irunabar.wordpress.com](http://irunabar.wordpress.com)

Horretaz gain, diskoa ezagutzera emateko eta eskuratzeko bideen berri emateko, Irunabarrek bideo bat prestatu du.

[http://www.youtube.com/watch?v=x\\_5Wlz-f2O8](http://www.youtube.com/watch?v=x_5Wlz-f2O8)



"2.3 Bertso berriak gure seme-alabei jarriak" kantuari dagokion argazkia. Eguzkitza ikastetxeko zenbait guraso eta seme-alabak parte hartu dute.



**La agricola**  
CALABRESA 2014 (100% VINO DA VINCI)

**URTEZAHARREKO**  
oferta

**CAVAZKO LIMON - ZURRIKAKIA**

**ETXERKO EDOIE MITZIT PUSKA**  
PEDRO XIMENAZKO METXAKA  
BELARRIKIN

**IZKINAZKO ETA AHUAKATEZKO**  
TARTANARRA KABIAR ZITRIKOREKIN

**MISERA ERDIA BIEKAITAR SALESATAN**

**BARBARIN SOLOMON KALANAZKO**  
PUREKOREKIN ETA XIKI HORIEKIN

**TEMPERATURA APNEAN BERE ZUKUAN**  
LENUAKO ARKUMI BLSOA

**3 TXOKOLATEZKO TARTA MANGO**  
LOZKIBARRIKIN

**EGOBERRIETAKO AURERA**

**BARNE ARRO DINDIA LAMBRUSCO**  
ZURIA DORRIA KOPA BAT CAVA ZORTE  
DREKI MAHATXAK ETA MOTILEI SORTA

**PREZIOA: 59EURO**

**LAURENTZAKO MENUA**

**URDIAZPIKO BERIKOA KROKAK ETA**  
MZIPUNO PATATEKIN

**IZONIA ETA ERIBERRIETAKO AURERA**

**PREZIOA: 29EURO**

*Eta gero...*  
**Jaia!!!**

2012an Eibarren antolatutako ligan Super Amara- Bidasoa Atletiko taldeko neska eta mutilak batera.



## Super Amara - Bidasoa Atletiko Taldea, marka guztiak hausten dituen kluba

Kronometroaren kontra aritzen dira egunero BAT taldeko neska-mutilak. Egunetik egunera, Plaiaundiko pistek gero eta atleta gazte gehiagori egiten diote ongietorria. Atletismo eskolaren eta federatutako kirolarien artean 400 bat kirolarirekin lana egiten du Bidasoa eskualdeko taldeak. Nahiz eta krisi ekonomikoak diru-laguntza gehienak berarekin eraman, BAT taldeak ez du amore ematen eta egunero hobetzen eta markak hausten jarraitzen du.

Korrika egitea koldarren kontua omen dela dio esaerak. Super Amara – Bidasoa Atletiko Taldeko atletak egiten duten lana ikusi ondoren, ordea, neska-mutil adoretsu eta ausartentzat zuzendutako kirola dela esan dezakegu. Plaiaundiko pistetan, berezko distira duten bi atleta gazterekin topo egiten dugu. Europako txapelketan 6. postua lortutako Teresa Errandonea eta Espainiako Txapelketan 1.500 metroko proban 7. izandako Nerea Sarriegi dira. Haien ondoan, Ibon Muñoz, taldeko zuzendari teknikoa eta entrenatzailea.

Orain dela urte asko ezagutzen dute elkar. Nereak odolean darama kirol hau. "Txikitatik aita eta anaiak korrika egiten ikusten nituen. Gainera, atletismoak betidanik erakarri du nire arreta". 19 urteko Teresa, berriz, 8 urterekin hasi zen diziplina gogor honetan. "Telebistan atletismo txapelketak ikusten nituen eta ikaragarri gustatzen zitzaidan. Gainera, eskola kirolean korrika egiten ona nintzen eta horrek taldean izena emateko animoak eman zizkidan".

**Sakrifizioz beteriko diziplina**

Adore eta kemen ikaragarria behar da atletismoan aritzeko. Diziplina honek lana gogor egitea eskatzen du eta horretarako denbora eskaintzea ezinbestekoa da. "Astean sei egunetan entrenatzen dut, bi orduko saioetan" dio Teresa irribarretsu batek. Bere taldekide Nereak, berriz, bost egun entrenatzen ditu asteen. Punta-puntako kirolari gaztea izateak, beraz, ez du askorako denborarik uzten. Hala ere, Teresa eta Nerea ikasle arduratsuak dira. Teresa "denbora edozein tokitatik ateratzen" saiatzen da; "unibertsitatea gertu dudanez, entrenatzera jarraian joaten naiz askotan". Bestalde, Ibon Muñoz entrenatzaileak haiekin egiten duen lana nabarmendu dute. "Berebiziko garrantzia du guretzat; izan ere, gure onena erakusten laguntzen digu eta momentu txarretan ere hor dago. Kirolari bezala, asko baloratzen duzu hori".

**Hobetzea helburu**

Aurtengo denboraldiko helburuak argi ditu Teresak. "Espainiako Txapelketan paper ona egin nahi nuke. Horretaz gain,



Ezkerrean, Teresa Errandonea, eta behean, Nerea Sarriegi.



aurten ospatzen diren 23 urte azpiko Mediterranean Jokoetara joateko txartela eskuratzea da nire nahia". Junior kategorian dagoen 18 urteko Nerearen helburuak ere ez dira makalak. "Espainiako Txapelketan paper ona egin nahiko nuke, bai pistan baita aire librean ere. Ahal bada, bi finaletan sartu eta gustura geratu egindako lana eta denborekin".

**Diru-laguntzarik gabe zer?**

Nahiz eta oso kirol gogorra eta zorrotza

izan, askotan, gizartean eta administrazioan ez zaio merezi duen lekua ematen. Krisi ekonomikoarekin batera etorritako diru-laguntzen faltak kirol honen zokortzea areagotu egin du. Kirolgiren diru-laguntzaren desagertzeari, Espainiako Federazioarenaren murrizketa gehitu behar zaio. "Babesleei gure esker ona erakutsi nahi diegu, haien laguntzari esker aurrera ateratzen ari gara eta", dio Ibon Muñoz zuzendari teknikoak. Horretaz gain, taldeak hainbat ekimen antolatu ditu atzean duen giza-taldea handitzeko asmoz. "Atletismo eskolaz gain, oposizioak prestatzeko edo sasoi mantentzeko korrika taldeak antolatu ditugu, helburu nagusia atletismoa eskualdean hedatzea baita".

Nerearen hitzetan atletismoak balio ugari erakusten dizkizu. "Esfortzu handia exijitzen dizu, baina arduratsuagoa izaten eta denbora hobeto antolatzen irakasten dizu. Azken finean, bizitzako aspektu guztietan hobetzen laguntzen dizu". "Taldeen primeran pasatzen dugu eta giro ezin hobea dugu" gaineratu du Teresak.

Informazioa: [www.atletismobat.com](http://www.atletismobat.com)

Telefonia: 609 672 917



Aitaren eta ahizparen urratsak jarraituz, 9 urte zituela eman zituen lehendabiziko palakadak Olatz Zabalak. Harrez geroztik, 21 urteko irundar honen progresioa geldiezia izan da. Txikitatik erakutsitako adorea, kemena eta sakrifikatzeko gaitasuna dira gazte honen arrakastaren gakoak. Gizonezkoak nagusi diren kirol munduan, bere balioa nazioartean erakutsi duen emakume kirolari honekin mintzatzeko aukera izan dugu.

## Olatz Zabala, Santiagotarrak Kirol Elkarteko piraguista eta entrenatzailea



# “Piraguismoak erakutsi dit lana gogor eginez gero ametsak egia bihurtzen direla”

**- Piraguismoan oso gazte zirela hasi zinen eta urteen joan-etorriak arrakastak eta dezeptioak ekarri dizkizu. Zein izan da kirol honek zure bizitzan izan duen ekarpenik esanguratsuena?**

Piraguismoak diziplina bat ezarri eta arduratsuago izaten irakatsi dit. Gainera, lana gogor eginez gero, ametsak egia bihurtzeko ikusten duzu. Txikitatik nire ametsa nazioarteko txapelketetan parte hartzea zen, eta urte hauetan guztietan egindako lan gogorraren ondoren lortu ahal izan dut.

**- Orain dela lau bat urte hasi zinen nazioarteko lehiaketa hauetan parte hartzen eta emaitza bikainak lortzen. Zeintzuk dira 2013-2014 denboraldirako finkatu dituzun helburu nagusiak?**

Maiatzean, Espainiako Maratoi Txapelketan K-1 eta K-2 kategorietan parte hartuko dut, eta bertan Europako Txapelketarako plaza lortzea da nire erronka. Abuztuan, berriz, Munduko Kopa daukat. Denboraldia primeran joanez gero eta emaitzak lagunduz gero, Munduko Txapelketarako txartela lortzea izango zen nire hurrengo helburua.

**- Estatuan eta nazioartean antolatutako txapelketa hauetan parte hartzeko diru laguntzarik jasotzen al duzu?**

Ez, kirolaria izateagatik ez dut inongo bekarik jasotzen. Taldea diru kontuekin laguntzen saiatzen da; baina, egoera ekonomikoa ikusita, gero eta diru-laguntza gutxiago daude. Piraguismoari, gainera, ez zaio beste kirolei bezainbesteko arreta eskaintzen. Beraz, aukera bakarra babesle bat aurkitzea da.

**- Erronkak gustuko dituen emakumea zara eta aurten Santiagotarrak talde federatuaren agintea hartzea erabaki duzu. Nola doa esperientzia berria?**



**Goian, Olatz, Banyolesen (Gironan) izandako Espainiako Maratoi txapelketan lehiatzen. Behean, Municheko Maratoian lortutako dominarekin.**

Oso ondo. Emaitza onak lortzeaz gain, taldekideen arteko elkarlaguntza sustatzea eta mutilek taldeko nesken lana gehiago baloratzen ikastea dira nire helburu nagusiak; orain arte, neskak nahiko zokoratuta baitzeuden.

**- Zure ustez, emakume kirolariek gizon-**

**koek baino oztopo gehiago gaintu behar al dituzte euren lana baliosteko?**

Bai, gizonak nagusi diren diziplina batean aritzeak esfortzu bikoitza eskatzen ditu. Gurea, emakume kirolariena, etengabeko erronka da. Etengabe erakutsi behar dugu

balio dugula. Adibidez, entrenatzaile bezala, emakumea izateagatik mutilen konfiantza irabaztea gehiago kostatu zait. Nire entrenatzeko moduan konfiantza izatea lortu baldin badut, Estatuan eta nazioartean lortu ditudan emaitzei esker izan da. Entrenatzailea gizonetako heldu bat izango balitz, ziur nago ez zutela inoiz berak esandakoa zalantzan jarriko.

**- Piraguismoa oso kirol zorrotza eta gogorra da. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien inguruko zure ikasketak bukatzean, non ikusten duzu zure burua?**

Beharra edo minusbaliotasunen bat duten pertsonak laguntzen; izan ere, kirola edozein motatako arazoak konpontzeko eta energia kontrolatzeko tresna dela uste dut. Gradu amaierako lana kirol egokituaren inguruan egiten ari naiz eta, etorkizunean, pertsona hauek gure klubean leku bat izatea gustatuko litzaidake. Ez sekzio berezi bat, baizik eta gurekin batera entrenatzea; izan ere, haien erabateko integrazioa oso garrantzitsua iruditzen zait. Bestalde, ziur nago klubarekin dudak erlazioa etorkizunean mantenduko dela eta piraguarekin jarraituko dudala. Santiagotarrak nire bigarren etxea da eta hemen ezagututako jendea, nire bigarren familia. Talde honek eta piraguak poz asko eman dizkirate.

**- Lasterketa herrikoi ugarietan parte hartu duzu, eta emaitza bikainak lortu. Zein dira zure egutegiko hurrengo erronkak?**

Hondarribiko San Silvestrean lehenengoan artean sailkatzea. Urte berriari begira, Taldea Bidea mendi lasterketan eta Irungo I. Maratoi Erdian aritu nahi nuke.

Munduko zortzerik onena opa diogu Olatz denboraldiko erronketan, eta Olentzerok babeslea ekar diezaiola.

# Hasteko, kardua



Neguko barazki honekin ekingo diogu gastronomiaren festari Irunero aldizkarian. Gastronomiaren gustatzen zaigu. Gastronomiarekin gozatzea gustatzen zaigu. Ez pentsa bakarrik mahaian eseri eta jatea gustatzen zaigula, ez, guri gastronomiaz hitz egitea eta arte hau lau haizetara zabaltzea gustatzen zaigu.

Hori egin nahi dugu gure txoko honetan, gastronomiaz hitz egin eta zuek, gurekin batera, gastronomiaz gozaraztea.

Gure lehen artikulua honetan, Nafarroako neguko barazki preziatuenetarikoa bati buruz hitz egin nahi dizuegu: kardua da. Gure etxeetan ez da oso ohikoa izaten, baina benetan gomendatzen dizuegu, fruta-dendan aurkituz gero, erosi eta gozatzea, merezi du eta. Jarraian, kardua garbitzeko eta prestatzeko gomendioak aipatuko dizkizuegu:

## Kardua garbitzen

Karduak, garbitzeko "arazoak" ematen ditu. Baina ez beldurrik izan, ez da dirudien bezain zaila eta. Egin beharrekoa: landarearen zutoinak zati txikitant moztu, 5-10 zm bitartekoak. Behin prest ditugula, hariak kendu behar dizkiegu, bi aldeetatik. Lan hau amaitzean, ura, izotz kozkorrak eta limoi zukua dituen bol batean sartuko ditugu, kolorerik gal ez dezaten. Egosteko orduan, presio-eltzea erabiliko dugu. Ura irakiten hastean, kardua ipini eta eltzearen tapa itxiko dugu. Presio-eltzea txistuka hastean, 20 minutuz egosiko dugu.

## Kardua prestatzen

Prestatzeko, errezeta andana aurkituko dituzue liburuetan eta Interneten. Guk errezeta simple bat utziko dizuegu hemen: kardua, almendra saltsarekin. Simple-simple, olio jarri kazuela batean eta bertan almendra gordina eta urdaiazpiko zatiak gehitu eta berotzen jarri. Behin prest ditugula, irina bota eta sukaldatu. Hau prest dugunean kardua gehitu eta pixkanaka-pixkanaka egosten joango gara, kardua egositakoan geratu zaigun saltsa gehitzen joango garelarik.

Hau gure lehen gomendio edo laguntzatxoa. Gogoratu: arteaz gain, gastronomia festa bat ere badelako, gozatu gastronomiaz, gozatu sukaldaritzaz eta gozatu bizitzaz. On egin!

**GASTROFESTA**

Oraitz Garcia



zure enpresari  
internetetik zabaltzen  
laguntzen diogu

- marketing online
- bideo online
- web orriak
- sare sozialak
- formakuntza



www.3yMedia.net

**Toki Alai LH Guraso Elkartearen  
EUSKARAZKO IPUIN LABURREN LEHIAKETAKO irabazleak**

**ZUHAITZ MAGIKOA**

Bazen behin mutil bat Joxe izena zuena. Joxek ez zuen inoiz hitz egiten euskaraz ez zekielako, ezta eskolan ere. Egun batean, paseatzen ari zela, zuhaitz polit batekin topo egin zuen eta Joxek pentsatu zuen: zuhaitz hau nire laguna izango balitz bezala egingo dut, horrela hitz egingo dut euskaraz eta asko ikasiko dut!  
Baina gero mutila euskaraz hitz egiten ari zela konturatu zen eta harrituta esan zuen: euskaraz hitz egiten ari naiz oraintxe bertan, zer ondo!, oihukatu zuen Joxek. Gero konturatu zen zuhaitzak begiekin begiratzen ari zitzaiola eta lurrera



erori zen. Joxek galdetu zion zuhaitzari:  
- Nola duzu izena?  
- Ni zuhaitz naiz, eta zu? - galdetu zion zuhaitzak.  
- Ba, nik Joxe izena dut  
- Joxe, nire aurrean euskaraz hitz egiten duzulako desio bat emango dizut.

- Nik nahi dudan desioa euskara asko jakitea da. Euskara, gure altxorra. Eta handik aurrera Joxek beti egin zuen euskaaz jende guztiarekin.

*Maialen Gomez Arranz  
2. maila*

**NIRE OSABAREN  
ALTXORRA**

Nire osaba Arantzan, Erreineko bordan, jaio zen. Gaztea izanik Ameriketara joan zen lan eske. Han artzain lana egin zuen. Urteak pasa ziren eta hona bueltatu egin zen. Egun batean nire familia osoa joan ginen bisita bat egitera.  
- Osaba Antonio, kontatu Ameriketako istorioa -, esan nion.  
- Ongi da -, esan zuen. Eta kontatzen hasi zen.  
- Garai batean, hau da, ni jaio nintzenean, anai-arreba asko izaten ginen. Ni baserri batean jaio nintzen eta lanik aurkitzen ez nuenez, Ameriketara joan nintzen. Han ardiak zaintzen nituen. Denbora asko pasatu zen eta honera etorri nintzen.  
- Eta zergatik etorri zinen honera, osaba Antonio? -, galdetu nion.  
- Altxorra errekupeatzeko etorri nintzen.  
- Altxorra? Ze altxor? -, galdetu nion. Orduan nire anaiarengana korrika joan nintzen eta dena kontatu nion. Nire anaia eta biok Erreineko Bordako bazter guztietan altxorra bilatzen hasi ginen. Baina alferrik. Osaba Antonioren gana joan ginen eta galdetu genion:  
- Baina, osaba Antonio! Non daukagu altxorra? -  
Osaba Antonio barrez hasi zen. Gu harrituta geunden.  
- Altxorra norberak bere barruan dauka.  
- Nola? - galdetu genion biok.  
- Euskara da gure altxorra -, esan zigun besarkada bat emanez.  
- Euskara? - galdetu genion  
- Bai. Ni Ameriketara triste nintzen euskaraz ezin hitz egin nengoelako. Han ingelesa besterik ez zen entzuten. Eta honera etorri nintzen altxorra

errekupeatzera. Eta hiruok oihukatu genuen.

**Euskara  
gure altxorra!!!**

*Irati Madariaga  
6. D*



**ARRAIN EUSKALDUNA**

Bazen behin hitz egin ezin zuen arrain bat. Bakarrik soinuak ateratzen zituen. Beste arrainei ez zien ulertzen eta triste zegoen.

Horregatik igeri eta igeri hasi zen beste lurralde berriak ezagutzeko eta beste arrainekin hitz egiteko aukera izateko.

Leku askotatik pasa ondoren Euskal Herrira iritsi zen. Han, besteen laguntzarekin euskaraz hitz egiten ikasi zuen. Oso ondo sentitu zuen, bere lekua zela pentsatu zuen, baita euskara bera ulertzeko era ere.

Abesti hau ikasi zuen: Euskaraz hitz egiten ondo pasatzen dut nire lagunekin kantari. Euskara niretzat bizitza da. Euskara da denen



jolasa. Euskara ez zaigu inoiz ahaztuko beti hitz egiten badugu. Euskara denen bihotzean dago, beti euskara, gure altxorra.

*Patricia Aramburu  
3. B*



- Indoor zikloa
- Tonifikazioa
- Pilates
- Step
- Zumba
- Muskulazioa
- Karatea: haurrak/helduak
- Tai chi
- Defentsa pertsonala
- Kick boxing
- Brasiljar Jiu Jitsu

**Bazkide  
nahiz bazkide  
ez direnentzat  
MASAJEA**

## Toki Alai BHI

# Euskalduna sentitzen naizelako

Hiromi Yoshida naiz, izatez japoniarra; baina, egia esan, hemengo asko baino euskaldunago sentitzen naiz. Denbora librea dudanean, Azpeitira etortzea dut gustuko, nor naizen inoiz ez ahazteko.



Euskara irakaslea naiz Japonian eta askotan galdetzen diot neure buruari nolatan sartu nintzen ni horrelako istorio batean, eta hauxe da erantzuna. Linguistika ikasi nahi nuen; hasiera batean Ingeles Filologia, baina hainbeste hizkuntza dago munduan... Nik arraro bat ikasi nahi nuen! Eskatu eta nire nahia errealtate bihurtu zen. Bertan, irakasle baten buruan euskara irakastea ziharduen eta horrela egin zen. Bost lagunek izena eman genuen taldea osatzeko.

Ikasketak bukatzean, Euskal Herrira etorri nintzen eta beste bizitza bat hasteko gai izan nintzen. Behin halaxe esan zidaten "euskara ez da zure ama hizkuntza", eta hauxe erantzun nion, "zaharra da, ez zaio inori gustatzen, baina ama hizkuntza ez da lehenik ikasten den hura, pentsamenduak sortzen dituen hizkuntza baizik".

Aurrera doaz denbora nahiz hitzak.

Duela hogeit hamar urte lagunekin kalean barrena nindoanean, ez nintzen euskaraz hitz egiten ausartzen. Orain berriz, ez dut besterik egiten. Eta egia esan, Donostiako Alde Zaharrean euskara asko eta asko entzuten dut.

Nire ikasleei beti irakasten diet Euskal Herria non dagoen eta batez ere, ama hizkuntza pentsatzeko baliatzen dugun hizkuntza dela eta posible dela, bizitzan zehar, euskaldun berrien ama hizkuntza euskara bilakatzea. Beti egongo da denbora tx, tz, s, ts edo horrelakorik ikasteko.

Niri behintzat EITBko *Nahieran* hau entzuterakoan zer pentsatua eman dit: hemengoak ez mintzatzeko eta japoniarrak mintzatzeko desiratzen egotea... Hau da marka, gero!

!  
OLATZ SANZ  
TOKI ALAI BHI

## INTERNETEN EZ BAZARA, EZ ZARA?



Kudeaketa komertzialean sare sozialei buruzko formazio-ikastaro askotan, topatzen ditudan enpresa txiki eta ertainetako jabeak erdi beldurrez erdi jakin-minez etortzen zaizkit.

Batzuek ondorioztatu dute beren enpresek derrigorrezkoa dutela on line presentzia. Ez dakite ongi zertarako, zer bilatzen duten horrekin; baina uste dute sarean ez

egotea kalean ere ez egotearen parean dagoela.

Halako zalantzak ikastaroa hasi eta ordu gutxira argitzen zaizkie, arindu ederra hartuta, bide batez esanda.

Berezko erantzuna da EZ, ez da behar-beharrezkoa Interneten egotea enpresak arrakasta izateko. Izan ere, establezimendu askok eta askok ez dute haren berri handirik izaten. Auzoan halako pila dauzkate: dendak, estankoak, bazarrak, bulegoak, tailerrak...

Baina... askotxori on egingo lioke, eta sektorean erreferentzia bat izateko baliagarri litzaieke.

Bezeroekiko harremanak hobetzea, produktuen kalitatea eta asebetetutako maila ezagutzea, eskaintzak ezagutaraztea, markaren pertzepzioa hobetzea edota zerbitzu eske datozen bezeroei kokapenaren berri eta iristeko bidea erraztea garrantzi handiko faktoreak izan daitezke enpresa baten etorkizuna ziurtatzeko tenorean. Beharbada ez bihar, baina bai datorren urtean.

Dena den, kontua ez da web orri bat sortzea, Facebook profil bat zabaltzea edo Foursquare-n gune bat erregistratzea, edo ez hori soilki. Hori edonork egin dezake, ez da bereizgarri bat.

Inportanteena, garrantzizkoa, eta zailena ere bai, komunikazio eraginkor bat lortzeko estrategia oso bat, edukiak publikatzeko errutina bat eta emaitzen monitorizatze bat sortzea da. Hori guztia gabe, gure aktibitatea Interneten alferreko lana izango da, denbora eta dirua xahuaraziko diguna.

Inor ez da ikastun jaio. Enpresa baten on line proiektua Interneten aurrera ateratzeko, ikasketak eta formazioa behar dira, bai eta eskarmentu pixka bat ere, hasierako hanka-sartzeak eta guzti, gerora akats larririk ez izateko. Kasu honetan, inportanteagoa da horiek konpontzen jakitea, inoiz ez egin izana baino.

Uste baldin baduzu zure enpresak onura lor lezakeela on line egonda, edo ogibidea horrela irabazi nahi bazenu, hitz egin ezazu gu bezalako aholkulari batekin, edo apunta zaitez gutxieneko teknikak eskuratzeko formazio ikastaro batera (askok diru-laguntzak izaten dituzte). Ez zara damutuko, dena aldatzen ari da eta ez zenuke trena galdu behar.

Pablo Moratinos  
Marketing online-aholkularia  
3yMedia Comunicación Digital

## BAKAILAOA DASTA EZAZU





# IrunBreak Lehiaketa

Aurreko edizioetako zenbait argazki.  
Lehiaketa 17:00etan hasiko da eta sarrerak 4 €tan salduko dira.

Heldu den abenduaren 29an puntako break dantzariak euren iaiotasuna erakutsiko dute Amaia KZko agertokian. Bertan ospatuko da IrunBreak VIII. Lehiaketa.

Arratsaldeko 17:00etan antzokiko argiak piztu eta oholtza gaineko ikuskizunari hasiera emango zaio. Dagoeneko break dantzaren munduan aski ezaguna den lehiaketa honetara Espainiako eta Frantziako hainbat bazterretako parte-hartzaileak etorriko dira: guztira hirurogei eta lau-  
rogei arteko lagun.

Airean zein lurlean zilipurdiak, zitzu biziko mugimenduak, muturreraino inarrositako gorputzak: kale dantzariak euren trebezia erakutsiko dute, baita zaleak aho zabalik utziko ere. Musikak zeresan handia izan ohi du ikuskizuna borobila izan dadin. Aurtengoan break dantzaren munduan oso ezaguna den Zaragozako DJ Lady Funk (Lorena) arituko da lan horretan.

Lehiaketako azken zutabe garrantzitsua epaimahaia da. VIII. edizio honetan hiru kide arduratuko dira sariak zeintzuk irabaziko dituzten erabakitzeaz: BGirl Jess, BBoy Kadoer eta BBOy Elihu. Irabazleak 600 € eskuratuko ditu, eta bigarren sailkatutakoak, 300.

#### Lehiaketaren egitura

Lehendabiziko kanporaketa 4 borrokatan datza, bakoitzean bi taldek parte hartuko dutela. Bigarren txandan, sailkatu diren taldeak beste bi borrokatan neurtuko dira. Honetan 3. et 4. postuetara eta finalera pasako diren taldeak hautatuko dira.

### Jatorria, Gaztelekuan

Lehiaketa Irunbreak eta Martindozenea Gaztelekuan antolatutakoa da.

Duela 9 urte gazte talde batek Gaztelekuan dantzan jarduteko areto bat eskatu zuten. Ordutik break dantzariak bertako bizitzan parte hartzeko gogo handia erakutsi dute. IrunBreak Lehiaketa da, hain zuzen, gazte ekintzaile hauen emaitzetako bat, hasieratik Irungo Udalaren babesa izan duena.

Lehiaketak Gazteria Arloko helburuetako bat betetzen du, hots, ekintzen diseinu eta antolaketan gazteen parte-hartze aktiboa bultzatzea.

**T. 678 617 907**  
mgrotulos@gmail.com  
**Pedro Manuel**  
Aristegui kalea, 12  
IRUN

**JARRI NAHI AL DITUZU SALGAI ZURE SEME-ALABEK ERABILTZEN EZ DITUZTEN GAUZAK?**  
**EROSI NAHI AL DITUZU HAURENTZAKO PRODUKTUAK ERDI-PREZIOAN?**  
Pasaportuak, sehaskak, motesak, esterilizagailuak, termoak, jostailuak, hamakak, autorako aukiak, oherako hesiak, taka-takak, baserritar jantziak, mazorroak, haurrentzako lanparak...

Alzukurantz, 15 – Irun. 943 61 09 00 • www.kulunkan.com



## Lehiaketak

### - INAUTERIAK IRAGARTZEKO KARTEL LEHIAKETA.

Deialdigilea: Irungo Udala.  
**Baldintzak:**

- Edozeinek parte har dezake.

- Lehiakide bakoitzak lan bana aurkeztu ahal izango du. 70 X 50 cm.

**Sariak:** 500 €ko sari bat eta 150eko akzesit bat.

**Epea:** Urtarrilak 24.

### - IKUS-ENTZUNEZKO LANEN 4. LEHIAKETA: "EMAN MINUTU 1 OGIAREN ALDE".



**Deialdigilea:** Unesco Etxea  
**Helburua:** Elikadurarako giza eskubideari buruzko kontzientzia zabaltzea.

**Baldintzak:**

- Edozein hizkuntzatan

- Formatuak: mov, avi, flv, mpeg, mp4.

- Gehienez ere minutu bateko iraupena.

- Nahi beste lan aurkez daitezke.

- Taldeka nahiz bakarka landu daitezke.

**Epea:** Urtarrilak 14

**Informazioa:** [minutu1minute@unescoetxea.org](mailto:minutu1minute@unescoetxea.org)



### - VIII. BREAK LEHIAKETA.

Noiz: Abenduaren 29an.

Non: Amaia KZn.

Ordua: 17:00etan.



## Lana

### - ERABILTZAILAENTZAKO ARRETA-LAGUNTZAILE POSTUA.

**Deialdigilea:** Irungo Udala.

**Baldintzak:**

Hizkuntza-eskakizuna: 3.a

Titulazioa: Elektrizitateko, elektronikako edo Informatikako teknikari espezialista.

Baliokidea den beste edozein ere onartzen da.

**Epea:** Deialdia ez da oraindik argitaratu.



## Ikastaroak

### - UNIBERTSITATEAN DAUDEN GAZTEENTZAKO UDAKO IKASTAROAK.



**Deialdigilea:** FULBRIGHT komisia.

**Edukia:** Lau beka Estatu Batuetan 2014ko udan burutuko diren bost asteko ikastaroetan parte hartzeko.

**Baldintzak:**

- Espainiar naziotasuna izatea, edo Europar Batasuneko hiritarra.

-18 eta 22 urte bitartekoa izatea.

- Ingurune akademiko batean ingelesez komunikatzeko gai izatea.

**Epea:** Urtarrilak 15.



### - PATIN ESKOLA

Astelehenero, El Pilar ikastetxean, 16:30etik 17:30era arte, hasiera mailako ume-entzako bakarrik. La Salle ikastetxean hasiera mailako ume eta helduentzako (17:30-18:30) edo hobe-kuntza mailako helduentzako (18:30-19:30).

**Informazio gehiago:** [patineskola.webnode.es/](http://patineskola.webnode.es/)



## Kotiloiak 2013/014

Gure eskualdean eta Donostian egingo diren kotiloien berri honako web honetan duzu:

[irun.org/igazte](http://irun.org/igazte).

- TRUCK DISKOTEKA

- CAFÉ IRUN

- LANDETXA

- BATAPLAN

- LA ROTONDA...

Sarrerak, kontsumizioak eta gainerako baldintzak zein eskaintzak eta egun horretan eskainiko diren garraio zerbitzuak.



## Quetzal BBVA 2014 ibilbidea

Ibilbidea Perun eta Espainian zehar izango da, 2014ko ekainaren 19tik uztailaren 23ra. Parte hartzaileak hautatzeko lehiaketak bi proba izango ditu:

gizarte proiektu bat aurkeztea eta literatur edo musika lan bat aurkeztea Peruko edo Espainiako XX. mendeko pertsonaia baten inguruan.

**Baldintzak:**

- Ikaslea izatea.

- Gaztelaniaz ondo hitz egin eta idaztea.

- Parte hartzen duen edozein herrialdeko nazionalitatea izatea eta, beste bat izanez gero, Espainian ikasten egotea.

- 1998. edo 1997. urtean jaiotakoa izatea.

**Epea:** urtarrilaren 28.



Irungo  
euskarazko  
hamabostekaria

## Irunero

Irunero non eskura dezaket?

### San Juan

Gaztelumendi  
Manolo  
Sargia  
Udal Liburutegia  
Gazte Informazio  
Bulegoa  
Arano  
Corner  
Fotokop

### Nafarroa hiribidea

Erka material  
elektrikoa  
Kutxa  
Ogi Berri  
Hawai  
Erauskin

### Santiago

Aguirre  
Txingudiko  
Zerbitzuak

Toma Pan y Moja  
Haizea  
Swing

### Urdanibia plaza

Migel  
Ospitale zaharra  
Euskaltegia  
Euskadiko Kutxa  
Eskina  
Lasa harategia

### Dunboa/Palmera - Montero/Arbes

Osasun Zentroa  
Tahona  
Zura  
Anetxe  
La Agricola  
Amalen paper-denda  
Biribil

### Behobia/Azken Portu

Azken Portu  
kiroldegia  
Ogi Berri  
Hawai  
Hizkuntza Eskola  
Eguneko zentroa  
**Kolon ibilbidea eta inguruak**  
Cadillon Hortz Klinika  
Brasil gozotegia  
Ogi Berri (Kolon)  
Ciaboga  
BBVA  
Kutxa  
Anbulatorioa  
Artaleku kiroldegia  
Virginia kafetegia  
Edurne kafetegia  
Erauskin  
(Luis Mariano)  
Sirimiri  
Turismo Bulegoa

SAC-HAZ  
Real Union taberna  
Gaudí  
Mendibil ardotea  
Merkairun  
Narrea kafetegia  
Jaiberri  
Luis Mariano  
pentsiodunen etxea  
Hawaii  
Ketan  
Santander bankua  
Solbes  
Oskarbi  
Kutxa  
Euskadiko Kutxa  
Peinart ileapaindegia  
**Pio XII**  
La Tahona  
Ñ kafetegia  
Ogi Berri

Alvaro paper-denda  
Erauskin  
**San Migel**  
Tabisa  
Caser egoitza  
Jaizbea okindegia  
Senosiain harategia  
Dumboa fruta-denda  
Uranzu azoka  
Gizarte  
Segurantzako  
Instituta  
LANBIDE  
BBVA  
Santander bankua  
Dani urdaitegia  
Erauskin  
Sabadell  
Euskadiko Kutxa  
Kutxa  
Sotero taberna

Baztan taberna  
Ogi Berri-Ogitxu  
Aguirre  
Adriana Barrios  
ileapaindegia  
**Antzaran**  
Picking Pack  
Rosi kioskoa  
Amantegui Hortz  
Klinika  
**Anaka**  
El Espazio  
Kutxa  
Mariño  
Ogi Berri  
Anaka okindegia  
Washington taberna  
Jaizkibel  
janari-denda  
Pablo harategia  
Anaka Berri erretegia

Covirán Anaka

**Puiana**  
Tahona  
Puiana taberna  
Ospitalea  
Endanea

**Larreaundi**  
Larrarte harategia  
Toma Pan y Moja  
Pedro arraindegia

**Elizatxo**  
Martindozenea  
gaztelekua

**Ikasturtean zehar, Irungo ikastetxe guztietan**

**Otsailaren 9ra arte****Erakusketa****Menchu Gal aretoan**

*Irun Hiria* 100 urte erakusketak azken mendeko historia laburbiltzen du; hain zuzen, Irunek "hiri" titulua lortu zuenetik ehun urte betetzen diren honetan.

Ostiraletan eta larunbatetan 18:00etatik 21:00etara.

- Igandeetan eta jai egunetan, goizeko 11:30etik 13:30era.

**Urtarrilaren 4ra arte****Erakusketa****Ikust-Alaian**

Nacho Fernandez *Alemaniar komikiaren kultura berria* izeneko erakusketa.

**Abenduaren 22ra arte****Erakusketa****Laboral Kutxan**

Susana Ferreiraren pintura erakusketa.

**Abenduaren 17tik mar-txoaren 9ra****Erakusketa****Diasso Museoa**

*Vasconia*, tarteko lurraldea izenburuko erakusketa.

**Abenduaren 19tik urtarrilaren 6ra****Azoka****Zabaltza plazan**

Gabonetako eskulangintza azoka, 26 saltokiz osatua. 11:00 - 14:30 eta 17:00 - 20:30.

**Abenduaren 19an****Udal liburutegian****Ipuin kontalaria**

19:30ean, helduentzako ipuin

kontalaria.

**Abenduaren 20tik urtarrilaren 4ra****Erakusketa****Amaia KZn**

Olentzero eta Jaiotza erakusketa.

**Abenduaren 20an eta urtarrilaren 3an.****Ikuskizuna****Erdialdeko kaleetan**

Gabonetako animazio komertzialaren programazioaren barruan, bi ikuskizun burutuko dira, argi- eta soinu-efektu magikoekin.

17:30ean Geltoki kalean, eta San Juan Harria plazan amaituko da 20:30 aldera.

**Abenduaren 22tik urtarrilaren 4ra****Haur parkea****Ficoban**

Ordutegia: 15:00etatik 20:00etara.

ITXITA abenduaren 24, 25, 31 eta urtarrilaren 1ean.

Prezioak:

13 urte arteko haurrek: 7 €

Helduek: 6 € .

10 umetik gorako taldeek: 5 € ume bakoitzeko + heldu laguntzailea doan).

3 urte arteko haurrek: Doan.

Familia ugariak (txartelarekin): 5 € ume bakoitzeko.

**Abenduaren 2lean****Kontzertua****Tunk! aretoan**

21:30ean, Dover taldearen kontzertua. Sarrerak: alde zuzenetik erosita, 15 €, eta leihatilean, 20.

**Abenduaren 24an****Kantu jaialdia San Juan Harria plazan**

19:00etan, Olentzero-kantu eta Gabon-kantuen Jaialdia.

- Olentzerori ongi etorria. Gipuzkoa hiribideko anbulatorioan 16:15ean. Gutunak jaso ondoren, kalejira San Juan plazaraino.



## Gabonak Diasso Museoa

**6-12 HAURRENTZAKO JARDUERAK****Abenduak 26**

11:00-13:30 MEATZE TRENA

**Abenduak 27**

11:00-13:00 ZESAR ETA KLEOPATRA

Sor ezazu zeure film laburra Playmobilekin.

**Abenduak 28**

12:00-14:00 VESTITIUM

Egin ezazu zeure erromatar jantzia

16:30-18:30 CINE FORUM

"Asterix eta 12 probak". Euskaraz

"Mendien misterioak". Euskaraz

**Abenduak 29**

11:00-13:00 TESSELLAE

Mosaiko tailerra

**Urtarrilak 2**

12:00-14:00 DUODECIM SCRIPTA

**Jolasak****Urtarrilak 3**

11:00-13:00 ZESAR ETA KLEOPATRA

16:30-18:30 CINE FORUM

"Asterix en los juegos Olímpicos". Gaztelaniaz.

**Urtarrilak 4**

12:00-14:00 VESTITIUM

**Urtarrilak 5**

11:00-13:00 TESSELLAE

**ERRESERBAK: 943 63 93 53**


## Euskararen agenda

**Zer:** Haurrentzako musika eta antzerki ikuskizuna euskaraz. "Maddi Pirata"

**Noiz:** Abenduaren 28an, 17:00etan.

**Non:** Amaia KZn.

**Sarrera:** 4 €.



**Zer:** Txirri, Mirri eta Txiribiton junior

**Noiz:** Abenduaren 27an, 17:00etan.

**Non:** Amaian. KZn.

**Sarrera:** 4 €.



**Zer:** Haurrentzako zinea euskaraz. "Ernest eta Celestine."

**Noiz:** Abenduaren 30ean, 17:00etan.

**Non:** Amaia KZn.

**Sarrera:** 4 €.

Hotel **A**talaia  
J A T E T X E A

ARITZ ONDO 69. 20305 VENTAS IRUN

Tel. 943 635 518 jatetxea

Tel. 943 629 433 hotela \*\*\*

info@hotelatalaia.com

www.hotelatalaia.com



# Caser Anaka

## Caser Betharram



## Gabonetan ere bizi bizirik dauden egoitzak

### Gure aitona-amonak, gure altxorra

Hauxe da Caser Anaka eta Betharram egoitzetako goiburua. Horregatik tratu goxoa, zerbitzu aukera zabala eta aisialdiko jarduera programa dira gure ardatzak.

Gabonetan ere gure egoitzak oso bizirik daude. Konpainia atsegina eta giro alaia dira nagusi. Aurten ekintza programa erakargarria antolatu da senideak parte hartzera animatzeko eta jaiak girotzeko. Egun berezi hauek gurekin batera ospatu nahi dituen oro gure egoitzetara etortzera gonbidatzen dugu.

Eskerrak eman nahi dizkiegu urte guztian zehar, eta bereziki Gabonetan, gurekin elkarlanean jarduten duten elkarte eta talde guztiei.

Caser Anakan zein Betharramen aldi baterako egonaldiak eskaintzen ditugu, etxean ez egoteko bakarrik, senidekoak atsedean har dezan edo/eta ospitaleratuta egon ondoren indarberritzeko.



## Gabonetako ekitaldiak

### ✓ ASTEAZKENA, ABENDUAK 18:

Meza Berezia eta Jaiotza Bizidunaren antzezpena. Anaka. 16:00etan.

✓ OSTEGUNA, ABENDUAK 19. Argoiak Elkarteko Abesbatza. 17:30ean. Betharram.

✓ OSTEGUNA, ABENDUAK 19. Antzerkia Uxoia Elkartearen eskutik. Anaka. 18:00etan.

✓ OSTIRALA, ABENDUAK 20. Kontserbatorioko ikasleen kontzertua. 17:30. Anaka

✓ ASTELEHENA, ABENDUAK 23. Dantza: Toxic taldea. Anaka. 17:30ean.

✓ OSTEGUNA, ABENDUAK 26. Kasiko Zaharreko abesbatza. Betharram. 17:30ean.

✓ OSTIRALA, ABENDUAK 27. Tatiana taldearen eskutik, dantza saioa. Anaka. 17:30ean.

### Betharram

✓ ABENDUAK 15, 10:30: Betharramgo katekieseko haurren Bizidun Jaiotza.

✓ ABENDUAK 19, 11:00: mazapan goxoa egingo dugu. 17:30: Argoiak abesbatza.

✓ ABENDUAK 20, 11:00: txistorra denontzat! 17:30: Eguberrietako bingoa eta saskiaren zozketa.

✓ ABENDUAK 24, 11:00: Lehiaketa. Erresidenteek eta langileek abestuko dute. 12:00: Zuhaitz bat egingo dugu gure nahiakin. Gabon gaueko afaria.

✓ ABENDUAK 25. Bazkaria.

✓ ABENDUAK 26. 17:30. Kasino Zaharreko abesbatza.

✓ ABENDUAK 27. Meza berezia.

✓ ABENDUAK 30. 11:00: argazki erakusketa. 17:30: Urtezahar festa.

✓ ABENDUAK 31. Urtezaharreko afaria.

✓ URTARRILAK 3. Tailer berezia.

✓ URTARRILAK 5. Erregeen bisita.

✓ URTARRILAK 6. Bazkari berezia.

